ANGELUKO IKASLEAK

OSOGUNEKO ERAKASKERA

2001-2002 - IKAS-URTEA -

HEMEZORTZIGARREN ERAKASPENA 

(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS GAIA.

1- Zertako, miliun horrek bazaukan harramantza bat?
2- Zuen ustez zer zen egiazko jokoa?
3- Zertako emaitzak eskas ziren?

Hasia 2000-2001 - IKAS-URTEAN - 1923

(II) UHALDEA 9

Etzen alabainan haurrik ere, ohartua etzenik miliun horrek bazaukala arramantz puska bat; galdatu izana zela goixko: hedoia lehertu ta hirugarren egunean, *itsura*, nehork etzakielarik oraino xuxen zonbatetaraino zoazken Euskal-Herriko galtzeak, ez eta ere guziak nun ziren.

Tokien ikusten ibil lehenik, xeheki, eta gero galda laguntza, ikusi makurren araberan: hau ziteken, hau, egiazko *jokoa*...

Horiek hola, zertan dugu gure erregebidea? Hein berean; ez da oraino eginik, deus. Zortzi gunetan itsuski lehertua dago, arrunt hautsia, eta barna. Harrizko arku gora bezain azkar batzu eraiki beharko gune hetan.

Garaitiko eremu guzian, bertzalde, larrutuz da biziraino, hanhemenka arrail batzuekin, —ez denean lur puska edo arbola erori batzuez trabatua. Iduri zuken bazela hor lana bi gizon andanentzat; alde batetik, kantonieren eta jornaler batzuentzat; bertzetik, «*genia*»-ko konpainia bat edo bientzat; hek egin zezatela errexena; hok aldiz, beren gain har zubien xutik ezartzea, eta erroitz handienen betetzea. Zentzuak, gure iduriko, hola manatzen zuen.

Etzitaken alabainan lan guzia kantonieren eskuko utz; nundik bilduko zuten hok jornalerrik aski? Sobera xuhur ahal da langilea, bai mendien haraindian, bai hunaindian!.

(III) ADITZ IKASKUNTZA

31 - bazaukala 32 - etzakielarik

33 - Hau ziteken, Etzitaken. 34 - zonbatetaraino zoazken

35 lehertua dago 36 - Iduri zuken

37 egin zezatela -

31 - EDUKI - Indicatif Imparfait.

| | Hura = le | Heiek = les |
|---|---|---|
| Nik naukan | = je le tenais | . nauzkan |
| Hik haukan | = tu le tenais | . hauzkan |
| Zuk zinaukan | = vs le teniez | . zinauzkan |
| Harek zaukan | = il le tenait | . zauzkan |
| Guk ginaukan | = nous les tenions | . ginauzkan |
| Zuek zinaukaten | = vs les teniez | . zinauzkaten |
| Heiek zaukaten | = ils les tenaient | . zauzkaten |

33 - IZAN Potentiel Imparfait.

Ni izan ninteken = je pouvais être
Hi izan hinteken = tu pouvais être
Zu izan zintezken = vous pouviez être
Hura izan ziteken = il pouvait être = zitaken
Gu izan gintezken = nous pouvions être
Zuek izan zintezketen = vous pouviez être
Hek izan zitezken = ils pouvaient être

34. JOAN. Régime Indirect. Indicatif - Imparfait

Pluriel. Hek zoatzin = Ils allaient

Hek (eux) zoazkitan = ils m'allaient
zoazkizun = ils vous allaient
zoazkion = ils lui allaient
zoazkigun = ils nous allaient
zoazkizuen = ils vous allaient
zoazkien = ils leur allaient = zoazken

32. JAKIN. Indicatif.

| Présent | C.D.S Imparfait |
|---|---|
| Nik dakit = je le sais | Nik nakien = je le savais |
| Hik dakik/n = tu le sais | Hik hakien = tu le savais |
| Zuk dakizu = vous le savez | Zuk zinakien = vs le saviez |
| Harek daki = il le sait | Harek zakien = il le savait |
| Guk dakigu = ns le savons | Guk ginakien = ns le savions |
| Zuek dakizue = vs le savez | Zuek zinakiten = vs le saviez |
| Heiek dakite = ils le savent | Heiek zakiten = ils le savaient |

C.D.P.

| | |
|---|---|
| Dazkit ou dakizkit = je les sais | Nazkien ou nakizkien = je les savais |
| { | |
| Dazkite ou dakizkite = ils les savent | Zazkiten ou zakizkiten = ils les savaient |